

# «Urbia babesleku izan zen 1936ko gerrako galtzailentzat»

Oñatarrek omenaldi egingo diote gaur Jerardo Elortza bertako ikerlariari. Historia aztertzen, ondarea babesten eta euskararen alde egiten nabarmendu da

:: FELIX IBARGUTXI

**OÑATI.** «Bi hankadun entziklopedia». Honela definitu izan dute Jerardo Elortza (Oñati, 1944). Haren omenez kultura askea egiten ari dira Oñatin, eta gaur eguerdian izango da ekitaldi nagusia.

–Zu zaitugu Jerardo bakarra, izena J letraz idazten duen bakarra.

–Bai, Gerardo Markuleta behintzat G-z idazten du izena. 'Gerarta' aukera ere hor zegoen, baina ez zitzaidan gustatzen. Eta nik txikitatik izena J-z ahoskatzen nuenetz, ba egin nuen beste batzuek egin zutena: Angel Anjel bihurtu zutenek bezala.

–Herrri oso euskaldun batean jaiotzea egokitu zitzaizun.

–Bai, Oñatik eutsi egin dio euskarari. Hamar mila biztanletik gorako herrri nabarmendu dira alde horietatik: Azkoitia, Azpeitia eta Oñati.

–1977an, beste lagun batzuekin, Bergarako UNEDeko Euskal Departamentua sortu zenuen. Toki hura importantea izan zen, hala-ko kultur fokua bat...

–Hara jendea joaten zen Euskaltzaindiaren D eta B tituluetarako prestatzeko. Ez zen urte oso-ko ikastaroik egiten, ikastaro tin-koak izaten ziren. Oso famatuak izan ziren Xabier Mendigurenek, Xabier Kintanak eta Jose Ramon Ekcheberriak ematen zituzten ikastaroak.

–Eta zer irakasten zen?

–Hizkuntza eta literatura. Kontuan izan behar da, UNEDek, berez, arautu gabeko ikasketak eskaintzeko ahalmena zuelak, eta horixe aprobexatu zen Euskal Departamentua martxoan jarzeko. Gogoa izan behar dugu ordu arte jendeak ez zuela eskolietan horrelakoik batere ikasten. Gero, 80. hamarkada hasieran Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzara pasatu zenean euskara-tituluen eskumena, eta EGA titulua sortu, guk jarraitu genuen ikasleak prestatzen. Bi mala zeuden, EGA eta Sakontze maila. Horrez gain, beste ikastaro asko eman ziren: euskara teknikoaz, Europa Erdialdeko literaturaz (Kafka, Musil, Brecht)... Litteraturagile horiei buruzko lehenengo euskarazko ikastaroak izango zireten seguru asko.

–Eta Joseba Sarrionandia ere jardun zen irakasle, gazte askoa.

–Bai, fonetikaz eta itzulpenaz.

–Ordan zeintzuk zineten departamentu hartan?

–Ni hasi nintzen, laster Juan Martin Elxepuru azaldu zen. Hura ere, ni bezala, Bergarako ikastolatik pasatzen, eta ondoren Xabier Pardo iru-

## Jerardo Elortza Irakasle eta ikerlaria



Jerardo Elortza, aste honetan Oñatiko kultur etxean. :: MORUECHO

«Humboldti buruzko tesina egin nahi nuen. Dekanoak esan zidan ez zela filologiako gaia»

«Bergarako Euskal Departamentuan Elxepuru, Tere, Pardo eta laurok jardun ginen»

«Lope Agirre araoztarra? Ez dago esaterik araoztarra zenik, eta ez zenik ere ez»

ñearra eta Tere Irastortza. Laukote hori eta idazkaria -Agirre-, horixe izan zen hasierako lantaldea.

–Baina beste gauza batzuk ere egin zituen departamentu hark.

–Bai, Bergarako euskara liburu atera genuen, adibidez. Nik, han, aipatzen nituen Bergarako idazleak, eta kontatzen nuen herriaren izena zein testu zaharretan azaltzen zen.

–Adibidez? Zein da lehenengo aipua?

–Hor dago Arrasateko erreketaren kantua, Bergarako kontra, noski. Bada beste esaera zahar bat, begeratzen ez oso atseginia: «Begera, ikusi eta igara». Hau da, «ikusi eta alde egin», edo horrelako zerbait. Eridi Arotik datorren esaera da, badakitzu, oinaztar eta ganboarren liskarren garaiko esaera da.

–Oñatin zer zeuden, oinaztarrek ala ganboarrek?

–Bietatik. Eta, gaur egun bezala, bazekiten bandoz aldatzen. Baina, normalean, Gebarako kondae ganboarren aldekoa zen. Lazarraga eta Garibaitarrek Gebararekin egiten zuten bat, morroi ilustreak ziren. Eta beste bandoan Murgia eta Uri bari zeuden. Arrasaten bezala, Oñatin ere borroka batean bizi ziren.

–Eliza barruan ere nabaritzen zen borroka hori. Denek nahi zuten aldare aurrean toki onena hartu, erakusteko «ni gehiago naiz».

–Elizan egon zen borroka bat ezpateta eta guzti, eta lagun bat hil. Arrazoi, bertko eztabaida: nor jarri lehenengo larian.

–Zu historialaria izanik...

–Et-et... Nik filologia ikasi nuen, eta gero historiako lan batzuk egin ditut zale naizelako. Nik Bilbon ikasit nuen filologia, hango mediku batek jarri zuen beka baten bitartez. Rikardo Arregik esanda jakin nuen hori zegoela. Seminariotik atera beriritan, zalantzan nengoela izan zen hura. Baldintzak ziren: mutila, alfabetatua euskaraz eta Letrak ikasi nahi zuena. Orduan, normalean neskek joaten ziren Letrak ikasteira.

–Alemaniar filologia aukeratu ze-niuen, ezta?

–Bai, eta asko kostatu zitzaidan. Beste batzuek ezagutzen zuten aleman txikitatik, pixka bat behintzat, nik batere ez. Han nengoela. Kriselu antzerki taldean jardun nintzen, euskarako eskolak ere eman nituen, ahal zela etxekoel gasturik ez eragiteko.

–Nolatan aukeratu zenuen hizkuntza alemana?

–Humboldti buruzko tesina egin nahi nuen. Hori baino lehenago, Deustuko Unibertsitate, pribatua zenez, errebaldia egin behar zenuen: 33 gai, bolatxo atera eta gau hura garatu behar. 1972an Alemaniara joan nintzen, alamanek idartzi behar zela tesina. Eta ehun folioko tesina egin behar izaten zen.

–Ehun folio alamanez?

–Bai. Ordu arte Humboldt ez zegoen



gehiegi aztertuta, eta joan nintzen unibertsitateko dekanarengana, hark batzuen ahalmena tesinaren gaita onartzeko. Jesuita zen. Esan nion 'Humboldt eta Euskal Herria' gaiatz idatzi behar nuela. Beste modu batera esan banio... Eta hark: «Hori ez da filologiko tesina batetako gaita». Badakigu nolako garrantzia izan zu- ten Humboldtarek, bi anaiek, Wil- helm eta Alexanderrek. Zein izan zen Wilhelmek 'akatsa'? Hona eto- tri eta euskara modan ipini zuela Eu- ropa. Dekanoak ezetza emanda, azke- nean gai 'gorriago' batez egin nuen tesina: Bertol Brechten ondorengo antzerkiak. Peter Weis eta.

hutsa zela, baina alferrik. Hor dugu kasu bat nola hipotesi bat binurzen den tesi zitura. Gaztelanaz ere esan ohi da: «Una hipótesis curiosa en poco tiempo se convierte en tesis rigurosa».

- **Oñatiko historiaran pasarte duda- mudazko bat: Lope Agirre Arao- tzen jaio zen?**  
- Ez dago esaterik araoztarra zenik, eta ez zenik ere ez. Berak esan zue- na da Oñatiko zela. Lope jaio ze- nean, hamaseigarren mende hasie- ran, ohioka zen pertsonak etxearen izena eramatea, eta Agirre edo Age- rre izeneko etxerak eta lagunak asko ziren. Axular bera Agirre zen. Oña- tin, Agirre izeneko bi baserri ditur- gu, bera hor dago oraindik. Berezo azuoan, eta bestea, badakigu orduan bazeagoela beste Agirre bat Araozen, udal artxiboan agertutako agiri bati esker. Bertan esaten da ezin dela gehiago erailki Arrikrutzen, Araozko Agirren eta Imitolan. Imitola ba- serni hori oraindik ere da. Eta Lope- ren gairi hartan Agirretar gehiago bazeuden kaletan bizitzaren. Zer ge- tarru zen Lope Araozkoa zela esateko?

- **Gauzak gehiago nahasteko, bada- kizu Aranaioko bertsoa ere agertu dela, Julien Arexolaiebaren bitartez.** Hor badago Ibañuen-Cachopin ize- neko kronika, hamaseigarren men- dekoa. Fama eta egin zen bere ga- rraian bertan 'leloren kanta' agert- zen zelako. Arexolaieba honek esat- ten du kronika horretan badagoela Loperen antza daukan gizon bat: Ara- maion jaotzen da, barrabaskentia bat egin eta gero Gasteiza doa. Gero, Ameriketan dagoela, alaba hiltzen du. Lopek bezala... Berba egin izan dugu elkarrekin. Nik esaten dudana da: Felipe II.ari idazten dion esku- titz horretan zertarako ezkutatut behar zuen bere jatorria Lopek? Gi- zon horrek dena galdia zuen, bazekeen ez zuela barkamenik izan- go.

- **Ez dakiagu. Badakigu tarteko bat, Esteban de Garbaj, ibili zela, uni- bertsiatara sortu bertan.**

- **Izan al zinen 1968ko Arantzazuko biltzarrean?**  
- Bai eta ez. Izan nintzen, baina ez naiz ageri argazki hartan. Bitxia da: argazki bat baino ez dago, guztioak ezaugarriak dugun hori. 1956an bes- te biltzar bat egin zuen Euskaltzain- diak Arantzazun, eta ordutik argazki gehiago dautu. 1968 biltzarraren izan zen. Kontua da ni Frankfurten nengoela abuztu hartan eta ez niki- en bueltatu ere egin behar nuen. Zein pisukide izandako bi lagun Martu- tenen zeuden preso, beste bi deport- atutak, beste bat hanka eginda... Ba- daezpada, lehenbizi Barzelonara joan nintzen, eta handik Euskal He- rriira Gero. Oñatitik gora, autosto- pez joan nintzen Arantzazura.

- **Inoiz entzun dizur Urbia toki ga- rritatitsua izan dela aberzaleent- zat.**  
- Bai, Urbia habesleku izan zen 1936ko gerrako gaitzaleentzat. Hara joaten ziren, batzuk mendizale zi- riak, besteak kaleko giroa itogari zitzaizkela. Han mendialdean la- salago hitz egin zezaketen. Nik, adi- bidez, Urbian jakin nuen gerratean zer gertatu zen, San Ignazio egumea hara joaten nintzelako gurasoekin. Batzuren nituen gudanekin edo ene- publikazaleekin ibiltakoan kon- tuak... Badakit Karla Linazasoro 'Altzeia' jeltzalea ere -Itziaki Linaza- sororen aita, Karlos Linazasororen aitona- sari izaten zela Urbian. Pena Basurto ere -Peña Santiagoren aita, ANVkoa izandakoa- han ikusten nuen Oñatiko mediku batekin... Nik han entzun nien batzuei nola tre- nez Puerto de Santa Mariarano era- man zituzten trenet, edatekorik ez eta beren txiza hartu behar...

- **Debekatuta zegoen garaian iku- rrima franko ipini ohi ziren han Ur- bia aldean.**  
- Ni gogoratzen naiz behin Urbitik behera nentorrela nola bat kanta- tzen ari zen, existituka, Agur Zube- roa. Pentsa, Ekxahunek 1948an sor- tu zuen kantu hori, eta nik handik hiru-lau ureira entzungo nuen, 1951- 52an!

- **Baizak, baina alferrik. Hor dugu kasu bat nola hipotesi bat binurzen den tesi zitura. Gaztelanaz ere esan ohi da: «Una hipótesis curiosa en poco tiempo se convierte en tesis rigurosa».**

## JAKINGARRIAK

### Irakasle jarduna

Jaio: Oñatin, 1944 ekainaren Sean.

**Ikasketak:** Umetan eta gaztetxo- tan, Saturrarango eta Donostiako seminarioan. Gero, Filosofia eta Letrak (Alemaniar Filologia) Deustu eta Münsterreko uni- bertsiatzean.

**Irakasle lana:** Hiru urtez, Bergara- ko Aranzadi ikastolan, 19 urtez, UNEDeko Euskal Kultura Depar- tamenduan. Azken urteak, Mon- dragon Unibertsitatean

### Liburuak

**Historia:** 'Gerrako garrak Oñatin', 'Oñati eta Gipuzkoaren bategitea', **Hizkuntza:** 'Bergarako euskeia', **Biografia:** Mikel Laboa, Antero Apaolaza eta Justo Garaterenak ('Bidegielak' bildumakoak).



Kultura etxeko erakusketan egon diren bere txikitako argazkiei begira. :: MORQUECHO

## «Hanpatu egin da gerra osteko Elizak euskararen alde egindako lana»

Jerardo Elortzak ez zuen aparteko giro euskaltzalerik ezagutu seminarioan. Lekuona eta Garro ziren salbuespena

### :: F. I.

**ONATI.** Gizon honekin hitz egi- teak esan nahi du «huntaz eta har- taz» jardutea. Gai batek segituan dakar bestea.

**Fari [Joan].** «Esan ohi da hanxe dela Oñatiko hitz enblematikoa, baina ez da Oñatiko hitza bakarrik. Bizkai- ko zenbait tokitan ere agertzen da, eta Hondarribian, eta Nafarroan ez dakit non... Oñatin bazeogen j-fjoko berezi bat: Joane asko Fane ziren».

**Herri oso bitxia.** «Oñati herri be- rezia izan da, lehenengo jaureiri eta geto konderri izan zelako. 1845ean sartu zen Gipuzkoako pro- bintzian. Horrek markatu egin zuen herria, oñatarrak 'kondepokoak' ziren, dependentzia bikoitza zeuka- ten, erregearrena eta kondearen.

Pentsa. Oñatin hiru alkate egoten ziren, kondeak izendatutakoa, he- rriak izendatutakoa eta hermanda- dearena. Herriarena jauntxoek aukeratzen zuten, eta kondearen onespena behar zuten.

Geografikoki ere Oñati berezia da. Gipuzkoako bailarak zuzenak eta estuak dira, hegaldetik iparal- dera doazenak. Oñatin, berriz, ma- dura zabalak zeuden, hau da, lau- tadak. Horregarrik egon ziren han- beste baserri, laurhun eta piko,

**Araba.** «Harreremank Arabarekin handiak ziren. Arlaban eta Sanda- ti [San Adrain] artean zamaibide asko zeuden, zamari-bideak. Ca- lahorrakoa zergatik? Oñati eliz- barruti horretakoa zelako, eta Le- gazpi, berriz, Iruñeko. Horregatik euskararen muga bi herrian artean? Kasualitatea beharbada? Oñatitik gora, Arabara bidean, bi benta zeu- den: Arrikrutzekoa eta Arriakoa».

**Eliza eta euskara.** «Hanpatu egin da gerra osteko Elizak euskararen alde egindako lana. Nik ezagutu ni- tuen Saturrarán eta Donostiako se- minarioak, eta haietan, ofizialki, astean behin baino ez zegoen euskara eskolarik. Bi irakasle euskaltzale bakarrik ikusi nituen: Anton Garro eta Juan Mari Leku- na. Behin Juanito San Martin eto- rri zitzaigun seminarioa. Iparal- deari buruz hitz egingera, eta orduan enteratu nintzen Arnaga non ze- goen». (Barreak).



## Orfeón Donostiarra Donostiako Orfeoia

Toller de música Antxon Avestián

Inscripción 2018-2019 · 2018-2019 · Ikasle bakoitzeko izen-emendia Hosta el 15 de julio. Utzilitzen 15a arte 943 42 22 39 info@orfeondonostiara.org www.orfeondonostiara.org

Descubre los superpoderes de la música

Ezagutu musikaren super-ohdimenak

• Talleres infantiles de 4 a 6 años.  
• 2 días/semana.  
• Entrenando los sentidos en juegos, canciones y baile.  
• Instrumentos ORFE y esculturas sonoras BASCHET.  
• Grupos reducidos (bilingüe).  
• Descuentos para familias numerosas.

• 4 eta 6 urte bitarteko haurerantzako talerak, ostean 2 egunetan.  
• Sorburak jolasean jolaz, orkestra eta dantzen bitartez.  
• ORFE musik-heserak eta BASCHET sormen-ekintzak.  
• Talde murriztutak (elapidunak).  
• Familia ugarietarako deskontuak.

ORFEO DONOSTIARRA DONOSTIAKO ORFEOIA